MINISTERIO
DE HACIENDA
Y FUNCIÓN PÚBLICA

muface

ARGIBIDEAK

AURREKO LAGUNTZEN ONDORIOAK LUZATZEKO ESKABIDEA, DPS-34150 INPRIMAKIA, BETETZEKO

(2023rako deialdiaren ebazpenaren 9.epigrafea)

ARGIBIDEAK

AURREKO LAGUNTZEN ONDORIOAK LUZATZEKO ESKABIDEA (2023rako deialdiaren ebazpenaren 9.epigrafea)

(DPS-34150)

Laburpen hau eskabidea betetzeko erabilgarri izango zaizu. Hala eta guztiz ere, prestazio hauen eduki osoa deialdiaren ebazpenean adierazten dela gogorarazten dizugu.

OHAR JAKINGARRIAK

- Ez idatzi tramaz ilundutako guneetan.

LAGUNTZA KOBRATZEKO

- Hasierako ordainketa eta hurrengoak hilerik behin edo zenbait hilabete pilatuta egin ahalko dira, betiere aldez aurretik fakturak edo ordainagiriak aurkeztuz gero.(Fakturek legezko betekizunak bete beharko dituzte eta ordainagiriek Deialdiaren 2.6.4 epigrafean adierazitakoak).
- Pertsona fisikoek adinetakoei zaintzeko eta laguntzeko egindako lanak adierazteko ordainagiri-eredua dagoeneko egina dugu (DPS-34915, 2023rako deialdiaren ebazpenaren II. eranskina). Etxez etxeko laguntzen modalitatean ordainketa bizkortzeko eredu hori erabiltzea gomendatzen da.
- Pertsona fisikoek ematen dituzten zerbitzuen kasuan, aurreneko aldizkako ordainketa egiteko, Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren (IFZ) eskaera aurkezten den erregistro administratiboak benetakotzat egiaztatuta kopia jaso beharko da, edo Atzerritarra Identifikatzeko agiria (AIZ), (salbuespena: zerbitzua ematen duenak baimena ematen badio MUFACEri, bere datuak Identitate Datuak Egiaztatzeko Sisteman kontsultatzeko). AIZ agiririk ez dutenek, berriz, Gizarte Segurantzako afiliazio-agiriaren eskaera aurkezten den erregistro administratiboak benetakotzat egiaztatuta kopia eta AIZ edo IFZ, kasuan kasu, lortzeko eskabidearena aurkeztu beharko dituzte.
- Laguntzen aldizkakotasuna edozein dela ere, ez da onartuko hauek finantzatzea: zenbait hilabetetako atzerapenak, dagoeneko ordainduta dauden fakturak edo ordainagiriak eta ordainagiri osagarriak ere.

1. **ESKATZEN DUEN TITULARRAREN DATUAK.** Afiliazio-agiriaren Titularrari buruz eskatutako datu guztiak adierazi
2. **2022. URTEAN JASOTAKO PRESTAZIOAREN DATUAK.** 2022 urtean jasotako laguntzari buruz eskatutako datu guztiak adierazi.
3. **TITULARRAREN AITORPENA.** Dagokion kasuaren arabera bete beharko duzu aitorpena.
4. **TRANSFERENTZIAREN BIDEZ ORDAINTZEKO DATUAK.** Derrigorrezkoa da banketxearen eta sukurtsalaren zenbakizko kodeak, kontrol digitua (K.D.) eta kontu korrontearen edo aurrezki libretaren zenbakia adieraztea.
5. **JAKINARAZPENERAKO DATUAK.** Nahi izanez gero, adieraz dezakezu zer bide nahiago duzun jakinarazpena egiteko eta baita beste bizileku bat jakinarazpen-ondorioetarako.
6. **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**
   - Mendekotasun-egoera aitortzen edo ukatzen duen ebazpena, bai eta, hala badagokio, Banakako Arreta Planarena (BAP), edo prestazio zehatza aitortzen duen ebazpenarena ere, betiere ebazpen horietatik Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak ez direla eraginkorrak ondorioztatzen bada.
   - 2011ko urtarrilaren 1az aurretik mendekotasuna-egoeraren adierazpenaren ezean, Autonomia Erkidegoari egindako berrikustearen eskaera
   - Mendekotasun-egoera onartzen bada, Banakako Arreta Plana egonda ala ez, autonomia-erkidegoak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, haren bidez egiaztatu beharko delarik Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak ez direla eraginkorrak deialdi honen denbora-eremuan.
   - Mendekotasun-egoera onartu ezean, behar bezala egiaztatu beharko da hasierako laguntza emateko oinarritzat hartu zen ezgaitasun-gradua balioduna dela.
   - Gizarte-Ekintzarako Batzordearen ziurtagiria edo honen pareko administrazio-agiria edo adierazpen erantzulea, DPS-34916 ereduaren arabera.